



LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

ZORIONAK LARRAUL!!!!

Larraulgo hondakinen gaikako bilketaren datu zehatzak heldu dira eta bide onean gaudela erakutsi digute. Alderaketa egiten badugu 2014ko azterketa eta 2016ko azterketaren artean, esan beharra dago 2016ko azken honetan datu hobekak eman ditugula, alegia hondakinak geroz eta hobeto sailkatzen ditugula. Adibide bezala, 2014ean eguneko 89 kilo zabor sortzen zuen Larraulek. 2016an, berriz 29 kilo zabor sortu genituen eguneko. Datu on hauek direla eta, herritarrok ordaintzen dugun zabor tasa jaisteko aukera ikusi du Udalak eta halaxe egin du.

Informazio gehiago nahi izanez gero, www.larraul.eus webgunean "udalaren zerbitzuak" esteka barruan, "Hondakinen gaikako bilketa" atala jadanik martxan dago. Bertan Mankomunitateak dituen zerbitzuei buruzko, konpostari buruzko eta gaikako bilketari buruzko zalantzak argitzeko gida aurkituko duzu. Honetaz gain gure herriko hondakinen gaikako bilketaren datu zehatzak ere aurki ditzakegu.

Bide onean goaz baina oraindik asko egiteko daukagu, baina zuen inplikazioa eskertzeko aukera hau ez genuen galdu nahi.

Zorionak Larraul!

Hondakinen gaikako bilketa geroz eta hobeto egiteagatik!

Larraulen, 2017ko otsailaren 21ean

